

# LAN MERKATUAREN BALANTZEA

## 2013

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



2013





Txosten honetan EAEko lan-merkatuak 2013. urtean izan dituen gertaera nagusiak aztertzen dira, haren aldagai garrantzitsuenen portaera kontuan hartuta. Lan-merkatuari lotuago dauden administrazio-iturriak hartu dira kontuan (Gizarte Segurantzako afiliazioa, erregistratutako langabezia eta kontratuen erregistroa), baita biztanleen lan-jarduera neurtzen duten eragiketa estatistiko nagusiak ere (Eustaten BJA, EINen BAI eta Eurostaten EFSko datu batzuk)

## Aurkibidea

### Testuinguru sozioekonomikoa

2013. urtea ekonomia suspertzea lortzeko inflexio-puntua gertatu den urtea izan daiteke ..... 4

### LANBIDE erakundeak erregistratutako langabezia

Krisialdia hasi zenetik, urtetik urterako saldoak langabezia jaitsi dela erakusten du lehenengo aldiz ..... 5

### Gizarte Segurantzako afiliazioa

2013ko otsailetik aurrera, EAEko afiliatu-mailak egonkortzeko joera izan du ..... 6

### Kontratuak

2013ko otsailetik aurrera, EAEko afiliatu-mailak egonkortzeko joera izan du ..... 7

### Enplegua EUSTATen BJaren arabera

2013an, enplegu-maila egonkortu egin da hainbat urtetan segidako jaitsierak izan ondoren 9

### Langabezia EUSTATen BJaren arabera

Enplegua egonkortu bada ere, langabe kopurua % 24,2 igo da biztanleria aktiboak gora egin duelako .....10

### BAIren datu osagarriak

Euskal Autonomia Erkidegoak Estatuko enplegu-tasa handiena izaten jarraitzen du .....11

### Eranskinak .....12

# Lan-merkatuaren balantzea 2013

## Testuinguru sozioekonomikoa

### 2013. urtea ekonomia suspertzea lortzeko inflexio-puntua gertatu den urtea izan daiteke

### Baina 2014. urtean enplegua deuseztatzen jarraituko da, nahiz eta neurrizko moduan, eta batez ere urtearen lehenengo zatian

2013. urtea Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak lurra jo duen eta suspertze-prozesua hasten den urtea izan daiteke. 2012. urtean joera gutxiagotik gehiagora zihoan; 2013. urtean, aldiz, prozesua kontrakoa da. Espero da BPGaren urtetik urterako tasan zifra negatiboak izatetik ateratzea 2014ko lehenengo hiruhilekoan.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Zuzendaritzak kalkulatzeko EAERI dagokion BPGA % 1,1 murriztu dela 2013an, 2012an izandako jaitziera baino 5 hamarren gutxiago.


Espero da suspertze ekonomikoa kanpoko sektorearen dinamismoa handiagoa izateak ahalbidetzea; aitzitik, barneko kontsumoari gehiago kostatuko zaio ekonomiaren bulkada berrien aurrean erreakzionatzea, ekonomia horren kokapena ahula delako, krisialdiaren luzapenaren ondorioz sortutako mesfidantzarengatik eta hobekuntza ekonomikoa berandu ikusiko delako etxeko ekonomietan.

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Zuzendaritzak egindako aurreikuspenei jarriki, euskal industriak balio negatiboa izango du urte honetako azken zatian, baina gora egingo du 2014aren hasieran, urteko batez besteko % 1,4ko balioa lortu arte. Era berean, bilakaera positiboa izango da zerbitzu guztietan, haien emaitzak hobetuz joango direlako % 1,0ko igoera erregistratu arte 2014. urte osoan. Eraikuntzak du oraindik emaitzarik txarra, jaitsierak izango baititu beste urte batean ere (% -2,9).

2014. urtean ekonomia suspertzeko prozesua gertatu den arren, enplegua deuseztatzen jarraituko da, nahiz eta neurrizko moduan, eta batez ere urtearen lehenengo zatian Espero da urtearen bigarren erdian enplegua egonkortzea.

Nazioarteko Moneta Funtsaren (NMF) arabera, munduko hazkundera gora egingo du 2014an, 2013an abiada motelean trabatuta egon ondoren. Munduko hazkundera % 3,7koa izango da 2014an; 2013an % 3koa izan da, eta 2015ean % 3,9 igoko da. Hazkunderaren gorakada handiagoa izango da ekonomia aurreratuetan. Euro-eremuari dagokionez, pentsatzen da hazkundera % 1 igoko dela 2014an eta % 1,4 2015ean. Baina gorakada neurrizkoagoa izango da gutxi-asko finantza-tentsioak izan dituzten Europako herrialdeetan (Grezia, Espainia, Zipre, Italia eta Portugal).


Nolanahi ere, azken urte hauetan izandako murrizketa ekonomiko handia gorabehera, 2012. urteari buruz argitaratutako azken datuaren arabera, Euskadi (30.040 euro pertsona bakoitzeko) Espainiaren buru izan zen biztanle bakoitzeko BPGari dagokionez, estatuko eta Europar Batasuneko batez bestekoaren oso gainetik.



# LANBIDE erakundeak erregistratutako langabezia

## Krisialdia hasi zenetik, urtetik urterako saldoak langabezia jaitsi dela erakusten du lehenengo aldiz

### Araba da urtea aurreko urtean baino langabe gutxiagorekin ixtea lortu ez duen EAEko lurralde historiko bakarra



Krisialdia hasi zenetik, urtetik urterako langabezia-saldoak lehenengo aldiz erakusten du langabe kopuruak behera egin duela. 2013. urtean,

LANBIDEn erregistratutako langabe kopuruak behera egin du, 1.709 pertsona gutxiago baitaude langabezia: % 1,01. Langabeziaren jaitsiera orokorra da autonomia-erkidego gehienetan; soilik Kantabrian eta Aragoi egin du gora. Gure inguruko autonomia-erkidegoetan soilik Errioxan ikusten da langabeziaren jaitsiera EAEkoa baino handiagoa dela. Baina estatu osoari dagokionez, EAEko langabeziaren jaitsiera txikia da gainerako autonomia-erkidegoekin alderatzen badugu.

Gaur egun, langabezia jaisten ari da gizonen artean; aitzitik, zertxobait igo da emakumeen artean; gizonen artean, % 2,3 jaitsi da; emakumeen artean, aldiz, % 0,98 igo da. Adinaren arabera, ikusten da korrelazio handia dagoela langabezia jaistearren eta gazteen artean. 34 urtetik beherakoetan jaitsi egin da, eta nabarmendu behar da gazteen artean asko jaitsi dela. 55-64 urtekoetan, % 8,47 igo da.

Jarduera ekonomikoaren arabera, nabarmendu behar da langabeziak behera egin duela krisiaren ondorioak gehien pairatu dituzten 2 sektoreetan, hau da, industrian eta eraikuntzan; lehenengoan, langabezia % 5,41 jaitsi da, eta bigarrean % 4,96. Lehen sektoreko langileen artean % 7,38 igo da eta egonkor eusten zaio zerbitzuetako langi-

leen kasuan. Lehendik ere lanik gabe egonik orain ere lanik gabe dauden kopurua % 0,33 igo da. Jarduera hauetan jaitsi da gehien langabezia: Herri Administrazioa, enpleguarekin lotutako jarduerak (ABLEak), bestelako lanbide-jarduerak, eraikuntza espezializatuko jarduerak, eraikuntzak eraikitzea, produktu metalikoen fabrikazioa eta hezkuntza. Aitzitik, honako jarduera ekonomiko hauetan igo da gehien langabe kopurua: etxeko langileak enplegatzan dituzten etxeak, janari-edarien zerbitzuak, txikizkako merkataritza, nekazaritza, abeltzaintza, erakinetarako zerbitzuak eta lorezaintza-jarduerak.

Hiru lurralde historikoen artean Arabak izan du langabeziaren bilakaerarik okerrera (% 0,8ko hazkundera); Gipuzkoan eta Bizkaian, aldiz, behera egin du, % 2,29 eta % 0,89, hurrenez hurren. Gasteiz nabarmendu da langabeziaren portaera txarra izan delako: 203 langabe berri. Langabeziaren hazkunderak esanguratsuak izan dira honako eskualde hauetan: Bilbo (+146), Uribealdea (+73), Aiaraldea (+60) eta Txorierri (+57). Ezkerraldea (-528), Bidasoa Behea (-240), Gobela (-198), Donostia Mendebaldea (-174), Lea-Artibai (-173), eta Tolosaldea (-145) dira langabeziaren jaitsiera handienak dituzten eskualdeak.

5 langabetatik 2k (% 39,5) langabeziagatikiko prestazio motaren bat jasotzen dute, iaz baino ia 3 puntu gutxiago. Iraupen luzeko langabe kopuruak gora egiten jarraitzen du, azken urtean % 15,54 igo da, eta, gaur egun, guztizko langabeen ia erdiak dira.

Langabeen % 13,5ek atzerriko pasaportea du. Bertakoen artean, langabezia % 2,27 jaitsi da, eta atzerritarren artean % 1,43. Ikasketa-mailaren arabera, langabeziak oinarritzko ikasketak dituzten artean soilik egin du gora.

## Gizarte Segurantzako afiliazioa

### 2013ko otsailetik aurrera, EAEko afiliatu-mailak egonkortzeko joera izan du

#### Gizonen enplegua da, oraindik ere, kaltetuena, eraikuntzako eta industriako emaitza txarrak luzatzen ari direlako

2013an Gizarte Segurantzaren alta emanda zeuden afiliatuaren kopuruaren saldoan ikusten da 12.449 afiliatu gutxiago daudela. Jaitsiera hori 2012koa baino askoz ere txikiagoa da, baina 2010ekoa eta 2011koa baino handiagoa. Nabarmendu behar dugu 2013ko otsailetik aurrera, afiliatu kopurua egonkortu egin dela, baina 2012an beheranzko joera izan zuen urte osoan.

Afilazioen beherakada, berriz ere, nabarmenagoa izan da gizonen artean (% -2,23) emakumeen artean baino (% -0,45).

Eraikuntza da afiliazio gehien galdu duen jarduerak: % 8,2 2012ko abenduko datuarekin alderatuta. Industrian % 3,2 egin du behera eta lehen sektorean % 3,95. Zerbitzuetan ez da ia galdu efektiborik, soilik % 0,23 egin dute behera.

Zehaztasun handiagoz aztertzen badugu, esan dezakegu afiliazio gehien galtzen duten jardueraren zatiak manufaktura-industria (-5.727), eraikuntza (-4.720), merkataritza (-1.936), informazioa eta komunikazioak (-1.189) eta garraioak eta biltegiratzea (-1.184) direla.

2013an gehien hazi diren jarduerak honako hauek izan dira: hezkuntza (+1.883), osasun-jarduerak (+1.068), etxeko langileak (+912), jolas-jarduerak (+367) eta higiezinaren jarduerak (+101).

Ostalaritza ondo joan da Araban eta Gipuzkoan, baina % 0,9 jaitsi da Bizkaian. Herri-administrazioa % 2,3 hazi da Gipuzkoan, baina % 3,2 jaitsi da Araban eta % 1,9 Bizkaian. Etxeko langile kopurua % 6,5 igo da Gipuzkoan, % 2,5 Bizkaian eta egonkortu egin da Araban (% -0,4).


Gipuzkoa, % 0,7ko jaitsierarekin, 2013an afiliatu gutxien galdu duen lurralde historikoa da. Araban

eta Bizkaian, galerak askoz handiagoak izan dira bi lurralde historikoetan, % 1,7 ingurukoak.

Afiliatu gehien galdu dituzten 40.000 biztanletik gorako udalerriak honako hauek izan dira ehunekoetan adierazita: Basauri (% -4,8), Irun (% -2,5), Bilbo (% -2,1). Afiliatu kopuruan gora egin dutenak honako hauek izan dira: Santurtzi (% +3,6) eta Getxo (% 1,0)

Atzeritarren afiliazioak % 6,8 egin du behera, eta bertakoen artean, berriz, % 1,1 jaitsi da. Atzeritarren afiliatu kopurua gehiago jaitsi da gizonen artean emakumeen artean baino, % -8,5 eta % 5,1, hurrenez hurren. Afiliatu atzeritar gehien galdu duten jarduerak honako hauek izan dira: eraikuntza (-904), ostalaritza (-786), lehen sektorea (-399), osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak (-312) eta manufaktura-industria (-258). Igo den jarduerak bakarrik hezkuntza izan da (+77).

Arabian izan du eraginik handiena atzeritarren afiliazioaren beherakadak. Lurralde horretan afiliazioen kopuruak % 13,1 egin du behera, Gipuzkoan % 3,6 eta Bizkaian % 6,6. Europar Batasunetik etorritako pertsonen afiliazioa % 4 jaitsi da, eta Batasunetik kanpokoena % 8,1.



## Kontratuak

### Metatua aurreko urtekoa baino zertxobait handiagoa da kontratazioaren portaera ona izan delako urtearen bigarren erdian

**Kontratu mugagabeek erakusten dute progresioa ona dela 2012. urtearekin alderatuta, % 3,5eko igoera izan baitute**

EAEn lanpostu bat izan duten kontratuen metatua 678.946 izan da, 2012ko metatua baino % 0,8 handiagoa. Aurreko urtearekin alderatzen badugu, ikus dezakegu kontratazio-bolumena igotzen joan dela urteak aurrera egin ahala. Urtearen lehenengo erdian kontratuen metatua aurreko urteko aldi berekoa baino % 3,5 txikiagoa zen, baina bigarren erdian % 1,9 handiagoa.

Kontratu guztien artean 44.594 mugagabeak izan dira, hau da, kontratuen % 6,6. Mugagabeen kopurua aldi baterako kontratua dutenen kopurua baino gehiago igo da, % 3 lehenengo kasuan eta % 0,7 bigarreanean.

Arabak igo da gehien kontratazioa (% 3,8); aitzitik, Bizkaian saldoa negatiboa da, % 1 jaitsi baita; Gipuzkoan % 2,29 igo da. Arabak izan du lan-kontratu mugagabeen proportzio txikiena (% 5,8) eta Gipuzkoak proportzio handiena (% 6,9), ondoren, oso hurbil, Bizkaia dago (% 6,6).

Kontratuaren kalitateari dagokionez, ez dago alde handirik sexuaren arabera. Gizonen lan-kontratu mugagabeen ehunekoa (% 6,4) emakumeena (% 6,8) baino pixka bat txikiagoa da. 25 urtetik beherakoek izan dute lan-kontratu mugagabeen ehuneko txikiena, % 4,2tik beherakoa; eta 54 urtetik gorakoek lan-kontratu mugagabedunen ehunekoa handiagoa izan da: % 8tik gorakoa.


Kontratuen % 11 atzeritarrei egin zaie. Atzeritarren artean lan-kontratu mugagabedunen ehunekoa (% 12,6) bertakoen mota horretako kontratua dutenen ehunekoa (% 5,8) baino askoz handiagoa izan da. Atzeritarren kasuan, lan-kontratu mugagabeak egiteko joera handiena bi sexuetan ikusten da, baina areagotu egiten da emakume atzeritarren kasuan, kontratu mugagabeen % 19,4ra iristen baita. Etxeko langileen lan-kontratu mugaga-

been joera handiagoa izatea portaera horrengatik azaltzen da neurri batean.

Kontratazioaren % 30,1 inolako prestakuntzarik ez duten okupazioetarako da, eta beste % 30,8 zerbitzuetako okupazioen artean ikusten da. Kontratuen % 18,1 prestakuntza handia behar duten baina eskuz egiten ez diren lanpostuak betetzeko egin da; % 14,7 industriako enplegu kualifikatueta-rako egin da; % 5,8 administrazioari lotutako lane-tarako, eta gainerako % 0,5a lehen sektoreari lotu-tako enpleguetarako.

Gehien kontratatzen duten enpresen jarduerak honako hauek dira: administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak, horien artean ABLEak daude, (% +27,1), ostalaritza (% +12,5), osasun-jarduerak (% +12,1), merkataritza (% +9,6) eta manufaktura-industriak (% +8,2).

2012. urtean guztira 227.086 pertsona kontratatu dira, aurreko urteko ia kopuru bera. 1.138 gizon gutxiago kontratatu dira, baina 1.087 emakume gehiago. Nabarmentzen da emakume atzeritarren kopurua igo egin dela eta gizon atzeritarren kopurua jaitsi



Txandakatze-tasa pertsona bakoitzeko 2,99 kontratu izan da; 2,78 gizonentzat, eta 3,22 emakumeentzat. Atzeritarren kasuan 2,16 da, eta bertakoen kasuan 3,14.



## Enplegua EUSTATen BJaren arabera

### 2013an, enplegu-maila egonkortu egin da hainbat urtetan segidako jaitsierak izan ondoren

#### Eraikuntza eta industria dira berriz ere portaera okerrean dutenak 2012. urtean

2013ko landunen batez bestekoa 2012koaren batez bestekoaren oso antzekoa da. Landun kopurari dagokionez, 5 urteetan segidan jaitsierak izan ondoren, badirudi 2013an eten egin dela enpleguaren deuseztatzea, 2008. urteaz geroztik, 82.200 enplegu deuseztatu dira, 75.100 gizonen kasuan eta 7.100 emakumeen kasuan. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoa da enplegu gehien deuseztatu duena krisialdiko urte hauetan termino erlatiboetara dagokienez; izan ere, 2008an baino % 9,7 landun gutxiago ditu; Araban, okupazioaren jaitsiera % 8,1 da, eta Bizkaian % 7,6 (lurralde horretan eutsi zaio hobekien enpleguari). Azken urte hauetan, gizonen enplegua zertxobait jaitsi da, 900 enplegu galdu dira; emakumeen kasuan, aldiz, 1.500 igo da.

Krisialdian, landunen zahartze bizkorra gertatzen ari da. 2008. urtetik aurrera, 29.500 enplegu galdu dira 25 urtetik beherakoetan, 87.700 25-44 urtekoetan; aitzitik, okupazioan 33.000 enplegu igo da 44 urtetik gorako kasuan. Izan ere, 2008an, 44 urtetik gorakoak biztanleriaren % 36,8 ziren; 2013an, aldiz, % 43,8 dira. Datozen urteetan gehiago azpimarratuko da zahartze-prozesu handi hori, euskal lan-merkatuak erronka berriei aurre egiten dien prozesua, hain zuzen ere. Erronka berri horiek honako hauek dira: belaunaldiz belaunaldiko ordezte eta zerga-sistemako desorekak.

Eraikuntza da azken urte honetan berriz ere portaerarik okerrean izan duen sektorea, loturiko okupazioa % 16,8 jaitsi baita; 9.700 enplegu galdu dira. Krisialdian enpleguaren % 42 galdu du, eraikuntzako gutxi gorabehera 35.000 langilek galdu dute beren enplegua.


2013an, industriak 6.600 enplegu galdu ditu, 2012an zituen enpleguen % 3,1. Zenbaki absolutuetan adierazita, krisialdian enplegu gehien de-

seztatu duen sektorea da; 2004. urtetik aurrera, 44.700 industria-langilek galdu dituzte beren lanpostuak, industria-enplegatuen % 17,7. Industriaren krisialdia askoz handiagoa izan da Araban (% -27) eta Gipuzkoan (% -20,5) Bizkaian baino (% -11,1).

Lehen sektoreak, oso ahul dagoenak, bere enpleguari eustea lortu du azken urtean. Krisialdian 3.500 enplegu galdu ditu, lehendik zuen kopuruarren % 28,7.

Zerbitzuek eutsi diete krisialdiaren erasoei. Azken urtean 16.200 enplegu gehiago izan dira, eta enplegu horiei esker, krisialdiaren hasieran baino 900 enplegu gehiago ditu. Termino erlatibotara, Araban portatu da hobekien zerbitzuetako enplegua krisialdi honetan. Bizkaia da krisialdian zerbitzuetako enplegua galdu duen lurralde bakarra: % 1,8.

Enplegua egonkortu den arren, soldatapekoen kopurua % 2,8 jaitsi da azken urte honetan. Galdutako soldatapeko 20.500 enpleguetatik, 17.400 lan-kontratu mugagabeak ziren. Krisialdiaren ondorioetako bat lan-harremanen prekarizazioa izaten ari da: krisialdian galdutako 4 enplegutatik 3 mugagabeak ziren.



2013an, enplegu-tasa % 66,2 da 20-64 urtekoen artean, 2020rako Europako helburua baino ia 9 puntu apalagoa. Emakumeen artean, % 61,3 da eta gizonen artean % 69,9.



## Langabezia EUSTATen BJaren arabera

### Enplegua egonkortu bada ere, langabe kopurua % 24,2 igo da biztanleria aktiboak gora egin duelako

#### Langabezia-tasa zertxobait txikiagoa da prestakuntza-maila handiagoa dutenen artean

Enplegua egonkortu bada ere, 2012ko datuekin alderatzen badugu, esan dezakegu langabe kopurua asko igo dela 2013an, biztanleria aktiboak asko igo delako batez ere 45 urtetik gorakoetan. 2013. urtean, batez beste 155.000 langabe izan dira, aurreko urtean baino 30.200 gehiago. Langabe guztietatik (86.400), % 55,7 gizonak dira, eta gainerakoak (68.500) emakumeak dira. Azken urte honetan, 16.800 gizon gehiago daude langabezian eta 13.300 emakume gehiago; krisialdian 66.500 gizon eta 49.800 emakume gehiago daude langabezian.

Langabezia-tasa % 14,6 da, 2012an baino 2,5 puntu gehiago. Gizonen langabezia-tasa 15,1 da, eta emakumeena 14,1; hots, gizonen tasa 2,6 puntu igo da eta emakumeena 2,4 puntu.

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoa da egoerarik hoberena duena, langabezia-tasa % 12 baita, eta Bizkaiko egoera da okerrrena, langabezia-tasa % 16,1 delako; Arabako tasa % 14,9 da. Araban, langabezia-tasa 5,2 puntu igo da eta portaerarik okerrrena duen lurraldea da; Gipuzkoan 3 puntu igo da eta Bizkaian soilik 1,4 puntu.

16-24 urtekoetan, langabezia-tasa % 40,5 da, 25-44 urtekoetan % 15,8 eta 45 urtetik gorakoetan % 10,5. Azken urte honetan, gazteen langabezia-tasa 7,7 puntu igo da, 25-44 urtekoena 2,5 puntu eta zaharrenena 2 puntu.


Langabezia-tasa txikiagoa da goi-mailako hezkuntza-profila dutenen artean (% 9,6) eta handiagoa erdi-mailakoa (17,3) eta lehen mailakoa dutenen artean (16,4).

Langabeen % 19,1 industria-sektorekoa da, % 12,4 eraikuntzakoa, % 62,1 zerbitzuetakoa eta soilik % 0,6 lehen sektorekoa. Azken urtean, zerbitzue-

tatik eratorritako langabe kopurua 21.300 igo da, industriakoa 6.700 eta eraikuntzakoa 2.400.

Euskal langabeen soilik % 5,7 ari da bere lehen enplegua bilatzen. Ehuneko hori handiagoa da Araban (% 7) eta txikiagoa Bizkaian (% 5); Gipuzkoan % 6,5 da.

### Langabezi tasa Europan



Europar Batasuneko langabezia-tasa 10,9 izan da, EAEkoa baino 3,7 puntu txikiagoa. Eurogunean tasa altuagoa eman da (% 12,1), Espainiaren, Greziaren, Portugalen eta Irlandaren tasa altuen ondorioz. Soilik Grezian (% 27,3), Espainian (% +26,4), Kroazian (% +17,6), Portugalen (% +16,5), eta Zipren (% +16) daude EAEko langabezia-tasa baino tasa handiagoak. Norvegiako eta Austriako langabezia-tasak % 5etik beherakoak dira, eta Alemaniakoak, Islandiakoak eta Luxemburgokoak % 6tik beherakoak. Europar Batasunean langabezia-tasa berdina da bi sexuentzat; aitzitik, Euskal Autonomia Erkidegoan gizonen langabezia-tasa emakumeena baino puntu 1 handiagoa da.

## BAiren datu osagarriak

### Euskal Autonomia Erkidegoak Estatuko enplegu-tasa handiena izaten jarraitzen du

**EAEko landunen batez besteko adina oso handia da, 42,9 urtekoa, eta hainbat sektoretakoa, esate baterako Herri Administrazioak oso zahartuta dago: 44,7 urte**


20-64 urtekoen kasuan, 2013. urtearen amaieran, BAIk eskaintzen duen langabezia-tasa EUSTATEk aldi horretarako eskaintzen duena baino zertxobait txikiagoa da. Nolanahi ere, EAEko tasa Estatuko handiena da, ondoren, oso hurbil Nafarroa eta Madril daude. Gizonen tasa bigarren handiena da, Nafarroaren ondoren, eta emakumeena da handiena.

EAEko soldatapekoen % 20,5ek aldi baterako kontratua du; % 17k gizonen kasuan eta % 24,5ek emakumeen kasuan. EAEko gizonen kasuan, aldi baterakotasun-tasa Estatu osoan gizonena baino 6,1 puntu txikiagoa da, baina emakumeena oso antzekoa da.

EAEko landunen % 16,1ek lanaldi-partzialeko kontratua du; proportzio hori estatu osoanaren oso antzekoa da. Lan mota horren proportzioak egonkortzeko joera du EAEn, baina Estatuan gora egiten jarraitzen du. EAEko emakumeen % 28,4k lanaldi mota hori du; aitzitik, gizonen proportzioa % 4,8 da soilik. Gizonen % 61,9k adierazi du denbora partzialean lan egiten duela ezin izan duelako beste lanaldi mota bat aurkitu; emakumeen artean, proportzio hori % 55eraino jaitsi da, lanaldi partzialeko emakumeen % 16k lanaldi hori aukeratzeko duelako haurrak edo helduak (gaixorik daudenak edo ezinduek) zaintzeko.

Astean batez beste 35,3 ordu lan egiten dira; 39,8 ordu gizonen eta 31,1 ordu emakumeen. Lanaldi laburrena duen autonomia-erkidegoa da. EAEn Estatu osoan baino 2 ordu eta erdi gehiago egiten dira lan astean. Kantabrian eta Galizian daude lanaldi luzeenak; Euskadin baino 5 ordu inguru gehiago lan egiten dira.

EAEko eta Asturiasko landunen batez besteko adina 42,9 urte da, Estatuko handiena. EAEko gizonen batez besteko adina (43,2) emakumeena baino handiagoa da (42,6).



EAEko sektorerik zahartuenak honako hauek dira: Herri Administrazioa (44,7 urte); nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza (44,2 urte); eta erauzketa-industria (44 urte). Plantillarik gazteenak dituztenak honako hauek dira: makinaren eta garraio-materialaren eraikuntza (41,3 urte); garraioa eta bitartekaria (41,4 urte); eta merkataritza (41,8 urte).

EAEko enplegu nagusiaren hileko batez besteko soldata gordinak 2.153,6€ zen 2102an (argitaratutako azken datua); Estatuko altuena, 314€ batez bestekoaren gainetik. Madril eta Nafarroa dira EAEko soldatetatik hurbilen dauden soldadak dituzten autonomia-erkidegoak, bi kasuetan 2.000€-tik gorakoak baitira.

Krisialdian, EAEko soldata % 1,9 soilik igo da, Estatuko autonomia-erkidego guztietako bigarren birlaerarik okerrean Extremaduraren ondoren, azken autonomia-erkidego horretan batez besteko soldata % 3,9 jaitsi baita. 2012. urtetik 2012. urtera doan aldiaren, soldata % 3,8 igo da estatu osoan batez beste.

# Eranskinak

## LANBIDE erakundeak erregistratutako langabezia

	GUZTIRA	GUZTIRA	Hileko alda-kuntza	Hileko alda-kuntza (%)	Aurreko hileko aldakuntza	Urteko alda-kuntza (%)
	2012	2013				
Urtarrila	155.867	175.281	6.198	3,7	19.414	12,5
Otsaila	159.330	178.006	2.725	1,6	18.676	11,7
Martxoa	161.918	179.341	1.335	0,7	17.423	10,8
Apirila	161.896	178.589	-752	-0,4	16.693	10,3
Maiatz	160.908	178.218	-371	-0,2	17.310	10,8
Ekaina	158.080	174.013	-4.205	-2,4	15.933	10,1
Uztaila	157.811	171.593	-2.420	-1,4	13.782	8,7
Abuztua	160.125	173.107	1.514	0,9	12.982	8,1
Iraila	164.139	176.486	3.379	2,0	12.347	7,5
Urria	168.078	178.267	1.781	1,0	10.189	6,1
Azaroa	171.069	174.700	-3.567	-2,0	3.631	2,1
Abendua	169.083	167.374	-7.326	-4,2	-1.709	-1,0

## LANBIDEn erregistratutako langabezia, sexuaren eta adinaren arabera

	2012			2013			Urteko aldakuntza			Urteko aldakuntza (%)		
	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira
16-24	7.159	6.122	13.281	5.350	4.866	10.216	-1.809	-1.256	-3.065	-25,3	-20,5	-23,1
25-34	21.235	19.984	41.219	19.189	18.984	38.173	-2.046	-1.000	-3.046	-9,6	-5,0	-7,4
35-44	23.484	23.376	46.860	23.299	23.854	47.153	-185	478	293	-0,8	2,0	0,6
45-54	19.778	18.971	38.749	20.523	19.548	40.071	745	577	1.322	3,8	3,0	3,4
55-64	12.915	16.059	28.974	14.167	17.594	31.761	1.252	1.535	2.787	9,7	9,6	9,6
Guztira	84.571	84.512	169.083	82.528	84.846	167.374	-2.043	334	-1.709	-2,4	0,4	-1,0

## LANBIDEn erregistratutako langabezia, sexuaren eta jarduera-sektorearen arabera

	2012			2013			Urteko aldakuntza			Urteko aldakuntza (%)		
	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira
Lehen sektor.	2.127	768	2.895	2.288	820	3.108	161	52	213	7,6	6,8	7,4
Industria	17.139	9.094	26.233	17.527	2.001	19.528	388	-7.093	-6.705	2,3	-78,0	-25,6
Eraikuntza	18.316	2.039	20.355	16.195	8.877	25.072	-2.121	6.838	4.717	-11,6	335,4	23,2
Zerbitzuak	42.107	63.407	105.514	41.844	63.690	105.534	-263	283	20	-0,6	0,4	0,0
Aurrez enpl ga	4.882	9.204	14.086	4.674	9.458	14.132	-208	254	46	-4,3	2,8	0,3
Guztira	84.571	84.512	169.083	82.528	84.846	167.374	-2.043	334	-1.709	-2,4	0,4	-1,0

## LANBIDEn erregistratutako langabezia, sexuaren eta langabezia-iraupearen arabera

	2012			2013			Urteko aldakuntza			Urteko aldakuntza (%)		
	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira
Irau luze lang	32.029	40.254	72.283	37.474	46.044	83.518	5.445	5.790	11.235	17,0	14,4	15,5
Iraulabur lang	52.542	44.258	96.800	45.054	38.802	83.856	-7.488	-5.456	-12.944	-14,3	-12,3	-13,4
GUZTIRA	84.571	84.512	169.083	82.528	84.846	167.374	-2.043	334	-1.709	-2,4	0,4	-1,0

## LANBIDEn erregistratutako langabezia, sexuaren eta bizileku den LH\_aren arabera

	2012			2013			Urteko aldakuntza			Urteko aldakuntza (%)		
	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira
Araba	13.182	13.402	26.584	13.240	13.558	26.798	58	156	214	0,4	1,2	0,8
Gipuzkoa	23.075	24.613	47.688	22.229	24.383	46.612	-846	-230	-1.076	-3,7	-0,9	-2,3
Bizkaia	48.314	46.497	94.811	47.059	46.905	93.964	-1.255	408	-847	-2,6	0,9	-0,9
Guztira	84.571	84.512	169.083	82.528	84.846	167.374	-2.043	334	-1.709	-2,4	0,4	-1,0

## LANBIDEn erregistratutako langabezia, sexuaren eta bizileku den eskualdearen arabera

	2012			2013			Urteko aldakuntza			Urteko aldakuntza (%)		
	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira
Bidasoa Behea	2.827	3.360	6.187	2.688	3.259	5.947	-139	-101	-240	-4,9	-3,0	-3,9
Oarsoaldea	2.913	2.608	5.521	2.742	2.668	5.410	-171	60	-111	-5,9	2,3	-2,0
Donostia	5.378	5.905	11.283	5.323	5.870	11.193	-55	-35	-90	-1,0	-0,6	-0,8
Donost. Mend	2.408	2.566	4.974	2.298	2.502	4.800	-110	-64	-174	-4,6	-2,5	-3,5
Tolosaldea	1.548	1.659	3.207	1.445	1.617	3.062	-103	-42	-145	-6,7	-2,5	-4,5
Urola Erdia	1.097	1.006	2.103	1.124	1.027	2.151	27	21	48	2,5	2,1	2,3
Goierri	1.190	1.341	2.531	1.163	1.305	2.468	-27	-36	-63	-2,3	-2,7	-2,5
Debagoiena	1.742	1.889	3.631	1.747	1.862	3.609	5	-27	-22	0,3	-1,4	-0,6
Debarrena	1.905	2.043	3.948	1.783	2.052	3.835	-122	9	-113	-6,4	0,4	-2,9
Urola Garaia	780	871	1.651	669	865	1.534	-111	-6	-117	-14,2	-0,7	-7,1
Urola Kosta	1.287	1.365	2.652	1.247	1.356	2.603	-40	-9	-49	-3,1	-0,7	-1,8
Gasteiz	10.325	10.463	20.788	10.399	10.592	20.991	74	129	203	0,7	1,2	1,0
Aiaraldea	1.478	1.660	3.138	1.495	1.703	3.198	17	43	60	1,2	2,6	1,9
Arabako Errioxa	422	397	819	437	428	865	15	31	46	3,6	7,8	5,6
Arab Lautada	525	507	1.032	494	494	988	-31	-13	-44	-5,9	-2,6	-4,3
Estrib. Gorbea	207	176	383	206	168	374	-1	-8	-9	-0,5	-4,5	-2,3
Arab Bailarak	280	303	583	274	289	563	-6	-14	-20	-2,1	-4,6	-3,4
Arab Mendial.	109	65	174	98	66	164	-11	1	-10	-10,1	1,5	-5,7
Gobela	3.308	3.604	6.912	3.184	3.530	6.714	-124	-74	-198	-3,7	-2,1	-2,9
Txorierrri	1.674	1.541	3.215	1.664	1.608	3.272	-10	67	57	-0,6	4,3	1,8
Uribealdea	1.928	1.976	3.904	1.970	2.007	3.977	42	31	73	2,2	1,6	1,9
Durungaldea	2.640	2.649	5.289	2.450	2.716	5.166	-190	67	-123	-7,2	2,5	-2,3
Busturialdea	1.625	1.543	3.168	1.599	1.585	3.184	-26	42	16	-1,6	2,7	0,5
Lea-Artibai	878	716	1.594	785	636	1.421	-93	-80	-173	-10,6	-11,2	-10,9
Enkarterri	1.507	1.444	2.951	1.468	1.465	2.933	-39	21	-18	-2,6	1,5	-0,6
Arratia-Zorna	1.094	1.098	2.192	1.068	1.121	2.189	-26	23	-3	-2,4	2,1	-0,1
Nerbioi Erdi Esk	1.105	940	2.045	1.049	1.000	2.049	-56	60	4	-5,1	6,4	0,2
Bilbo	15.323	15.518	30.841	15.317	15.670	30.987	-6	152	146	0,0	1,0	0,5
Ezkerraldea	13.676	11.772	25.448	12.996	11.924	24.920	-680	152	-528	-5,0	1,3	-2,1
Ibaizabal	3.389	3.525	6.914	3.346	3.461	6.807	-43	-64	-107	-1,3	-1,8	-1,5
EAE	84.571	84.512	169.083	82.528	84.846	167.374	-2.043	334	-1.709	-2,4	0,4	-1,0

## LANBIDEn erregistratutako langabezia, sexuaren eta prestakuntza-mailaren arabera

	2012			2013			Urteko aldakuntza			Urteko aldakuntza (%)		
	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira
Derrigorrezko hezkuntzaraino	55.064	47.505	102.569	54.307	48.531	102.838	-757	1.026	269	-1,4	2,2	0,3
Batxilerra	7.263	7.717	14.980	6.891	7.591	14.482	-372	-126	-498	-5,1	-1,6	-3,3
Lanbide Heziketa	14.598	15.762	30.360	13.511	15.662	29.173	-1.087	-100	-1.187	-7,4	-0,6	-3,9
Unibertsitate-mailakoak	7.646	13.528	21.174	7.819	13.062	20.881	173	-466	-293	2,3	-3,4	-1,4
Guztira	84.571	84.512	169.083	82.528	84.846	167.374	-2.043	334	-1.709	-2,4	0,4	-1,0

## LANBIDEn erregistratutako langabezia, sexuaren eta langabezia-prestazioak kobratzearen arabera

	2012			2013			Urteko aldakuntza			Urteko aldakuntza (%)		
	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira	gizonak	mujeres	guztira
Sorospena	12.202	12.666	24.868	11.507	11.801	23.308	-695	-865	-1.560	-5,7	-6,8	-6,3
GEA	1.381	1.081	2.462	2.054	1.279	3.333	673	198	871	48,7	18,3	35,4
Prestazioa	25.977	18.166	44.143	22.742	16.656	39.398	-3.235	-1.510	-4.745	-12,5	-8,3	-10,7
Guztira	39.560	31.913	71.473	36.303	29.736	66.039	-3.257	-2.177	-5.434	-8,2	-6,8	-7,6

## LANBIDEn erregistratutako langabezia, sexuaren eta jatorrizko jardueraren arabera

	2012			2013			Urteko aldakuntza			Urteko aldakuntza (%)		
